

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN SERBITZUA – BEZAREN ETA ZERGA BEREZIAREN ATALA

438/2019 Foru Agindua, irailaren 4koa, onespena ematea Zerga Berezien Erregelamenduaren 27, 101, 102 eta 110 artikulua garatzeko araua

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituneko 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, fabrikazioaren gaineko zerga bereziak zerga itunduak dira eta araubide erkideko lurraldean indarrean dauden funtsezko eta erazko arau berberak aplikatzen zaizkie; horrek ez du inolaz ere eragozten foru aldundiek zerga berezien aitorten-ereduak onesteko eta zerga horien kargak ordaintzeko epealdiak ezartzeko daukaten eskumena.

Bestalde, Ekonomia Itunaren lehenengo xedapen gehigarriak xedatzen du lurralde historikoetako erakunde eskudunek Ekonomia Ituna aplikatzeko behar diren xedapenak eman arte lurralde erkidean indarrean dauden arauak aplikatuko direla eta ordezkotutako zuzenbidea izango direla.

Arabako Lurralde Historikoko erakunde eskudunek Premia Fiskalari buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Arau Dekretua onetsi zuten, zeinak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea Arabako zerga-araudira egokitu baitzuen. Baina orain arte ez da arauketa hori arautegi bidez garatu; horrenbestez, aipatutako lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, ordezkotutako zuzenbide gisa aplikatu behar da lurralde erkide bakoitzean unean-unean indarrean dagoen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onetsitako Zerga Bereziei buruzko Erregelamendua.

Abenduaren 29ko 1075/2017 Errege Dekretuaren bidez araudi hori aldatu zen, zehazki 27 artikulua, zeinak bideko salmentako prozedura arautzen baitu.

Artikulu horretan xedatutakoarekin bat etorritik, bideko salmentaren prozedura erabiliz atera ahal izango dira fabrikako edo biltegi fiskaleko produktuak, betiere zerga-tasa arrunta edo muriztua aplikatuta sortu bada zerga eta agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Halakoetan, bidalketa baino lehen eta zirkulazioaren hasiera-data baino zazpi egun natural lehenago, gehienez ere, zirkulazio-albaranaren zirriborroa beteko du bidaltzaileak bitarteko elektronikoak erabiliz, eta zergen administrazioari igorriko dio baliozkotu dezan, Zerga Berezien Erregelamendua garatzeko xedapenak dakartzaten jarraibideak beteko dituen sistema informatizatuaren bidez.

Zergen administrazioak zirkulazio-albaranaren zirriborroko datuak egiaztatuko ditu bitarteko elektronikoak erabiliz eta, baliozkoak badira, erreferentziako kode elektronikoa esleituko dio.

Produktua hartzaile bakoitzari ematean, emate-oharra emango da, zirkulazio-albaranaren kargura, onesten den ereduari jarraituz.

Jatorriko establezimendura itzuli bezain laster eta zirkulazioa bukatu ondorengo bost egun balioduneko epearen barruan, zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharretan bildutako informazioa helaraziko dio bidaltzaileak zergen administrazioari, bitarteko elektronikoak erabiliz eta onetsitako prozedurarekin bat etorritik.

Baldintza horiek garatze aldera, Zerga Berezien Erregelamenduko 27. artikuluan xedaturikoa egingo da, era honetan: zirkulazio-albaranaren zirriborroa betetzeko eta zergen administrazioari bidaltzeko beharrezko jarraibideak onartuta, zirkulazio-albaranaren kargurako hornidura

bakoitzeko igorri beharreko emate-oharren ereduak, emate-oharrak betetzeko argibideak eta horietan bildutako informazioa zergen administrazioari bitarteko elektronikoak erabiliz jakinarazteko jarraibideak onetsita, baita zergen administrazioak sistema informatikorik ez duenean zirkulazio-albarana zirkulazioa hasi ondoren bitarteko elektronikoak erabiliz betetzeko baldintzak ere.

Bestalde, Zerga Berezien Erregelamenduko 101. artikulua xedatzen duenez, aireontziei eginiko erregai-horniduretan, Zerga Bereziak arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 16ko Premia Fiskalari buruzko 1/1999 Arau Dekretuaren 51.2.a) artikuluan ezarritako salbuespena justifikatzeko, onesten den ereduari jarraituko dioten emate-frogagiriak erabiliko dira. Hartara, hornidura horietan, emate-frogagiritan bildutako informazioa aurkeztuko du hornitzaileak ezartzen den epean eta bitarteko eta prozedura elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz.

Hori dela eta, emate-frogagiriaren ereduak onetsi da, baita emate-frogagiritan bildutako informazioa zergen administrazioari aitortzeko prozeduraren garapena ere.

Bukatzeko, Zerga Berezien Erregelamenduko 110. artikuluan ezarrita dagoenez, itzultzeko eskubidea sortzen duten horniduretan, emate-ordainagiriak erabiliko dira, onetsitako ereduari jarraituz betiere.

Horiek horrela, Zerga Berezien Erregelamenduko 110. artikulua hori garatu da, eta horrelako horniduretan aplikatu beharreko emate-ordainagiriaren ereduak onetsi.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dauzkadan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Bideko salmentaren prozeduran galdatzekoa den zirkulazio-albarana betetzeko arauak onestea

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, bideko salmentaren prozedurako zirkulazio-albaranaren zirriborroa betetzeko arauak onesten dira, baita zirkulazio-albaranaren zirriborroaren mezu elektronikoak egiteko, zirkulazio-albaranaren zirriborroa ezabatzeko eta bideko salmentaren prozeduran emandako produktuak (I. eranskinean daude jasota) establezimenduan berriz sartzeko jarraibideak ere.

2. artikulua. Zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharren ereduak onestea bideko salmentaren prozeduran Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien xedeko produktuen horniduretan

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharren ereduak onetsi dira bideko salmentaren prozeduran Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien xedeko produktuen horniduretan. Foru Agindu honetako II. eranskinean, III. eranskinean eta I. eranskinean bildu dira ereduak.

Foru Agindu honetako II., III. eta IV. eranskinetan onetsitako ereduak betetzen direla kontsideratuko da dokumentuetan edo bitarteko elektronikoak erabiliz eginiko emate-oharrak badira eta, gutxienez, eranskin horietan bildutako datu eta argibide berdinak biltzen badituzte.

3. artikulua. Bideko salmentaren sistemako emate-oharrak betetzeko jarraibideak eta Zergen Administrazioari emate-oharretan bildutako informazioa telematika bidez jakinarazteko jarraibideak onestea

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharren ereduak onetsi dira bideko salmentaren sisteman, baita bideko salmentaren prozedurako zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharretan bildutako informazioa Zergen

Administrazioari bitarteko elektronikoak erabiliz jakinarazteko mezu elektronikoa egiteko jarraibideak ere, betiere uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27. artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz.

4. artikulua. Zirkulazio-albaranaren zirriborroa jakinarazteko sistema informatikoa erabiltzeko moduan ez dagoenean jarraitu beharreko prozedura

1. Baldin eta zirkulazio-albaranaren zirriborra bitarteko elektronikoak erabiliz aurkezteko sistema informatikoa erabiltzeko moduan ez badago, bideko salmentaren prozeduraren bidez ekin diezaike bidaltzaileak zerga berezien xedeko produktuen zirkulazioari, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko zatekeen albaranaren zirriborroak dituen datu berak biltzen dituen albaranarekin batera joan behar dute produktuek.

b) Bidaltzailearen bulego kudeatzaileari jakinarazi behar zaio zirkulazio-albarana bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko sistema informatikoa erabiltzeko moduan ez dagoela, baita baliaezintasunaren arrazoiak eta aurreikusitako iraupena ere, horren berri izanez gero. Alabaina, bulego kudeatzaileak baimena eman baino lehen, aipaturiko jakinarazpenaren balio bera eman dakioke bidaltzaileak erregistro automatizatuak eta auditatzeko modukoak izateari, zirkulazio-albaranaren zirriborroa jakinarazteko ezintasuna egiaztatzeko.

2. Bulego kudeatzaileak jakinarazpen hori jaso izana agerraraztea ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabil daiteke sistema informatikoa erabiltzeko moduan ez dagoela jakinarazteko.

Ondorio horietarako, jakinarazpenerako erabil daitezke Zerga Administrazioaren Erregistro Elektronikoa, faxa edo posta elektronikoa.

Bidaltzaileak zirkulazioa abiaraz dezake sistema informatikoa erabiltzeko moduan ez dagoela jakinarazitakoan, bulego kudeatzailearen erantzuna jaso ez badu ere.

3. Sistema berriz ere erabiltzeko moduan dagoenean, eta beranduen konexioa berriz ezarri eta hurrengo egun baliodunean, zirkulazio-albarana beteko du bidaltzaileak bitarteko elektronikoak erabiliz, I. eranskinean bildutako jarraibideen arabera.

5. artikulua. Egiaztagiraren eredia onestea, aireontzientzako erregaien horniduretan eman beharrekoa

Zerga Berezien Erregelamenduko 101. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, aireontzientzako horniduretan erabili beharreko egiaztagiraren eredia onesten da, baldin eta Premia Fiskalari buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Legearen 51.2a) artikuluan ezarritako salbuespena aplikatu beharra badago (VI. eranskina).

Foru Agindu honetako IV. eranskinean onetsitako eredia betetzen dela kontsideratuko da dokumentuetan edo bitarteko elektronikoen bidez eginiko emate-oharrak badira eta, gutxienez, eranskin horietan bildutako datu eta argibide berdinak biltzen badituzte.

6. artikulua. Aireontzientzako horniduretako emate-ziurtagiria betetzeko jarraibideak onestea, baita emate-egiaztagirietan bildutako informazioa Zergen Administrazioari telematika bidez aurkezteko prozedura ere

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 101. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, aireontzientzako horniduretako emate-ziurtagiria betetzeko jarraibideak eta emate-egiaztagirietan bildutako informazioa Zergen Administrazioari telematika bidez helarazteko mezu elektronikoa egiteko jarraibideak onesten dira, baita aurkezteko epeak ere. Hori guztia VII. Eranskinean bildu da.

7. artikulua. Hidrokarburoen gaineko zergaren zioz ordainarazitako kuotak itzultzeko eskubidea sortzen duten itsasontzientzako horniduretako emate-ordainagiriaren eredia onestea, Zerga Berezien Erregelamenduko 110. artikuluan ezarritako baldintzetan

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 110. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, Hidrokarburoen gaineko Zergaren zioz ordainarazitako kuotak itzultzeko eskubidea sortzen duten itsasontzientzako horniduretako emate-ordainagiriaren eredia onetsi da, baita eredu hori betetzeko jarraibideak ere. VIII. eranskinean bildu dira.

Foru Agindu honetako VIII. eranskinean onetsitako eredia betetzen dela kontsideratuko da dokumentuetan edo bitarteko elektronikoen bidezko eginiko emate-oharrak badira eta, gutxienez, eranskin horietan bildutako datu eta argibide berdinak biltzen badituzte.

8. artikulua. Datuen hornidura elektronikoa egiteko baldintza orokorrak

1. Bitarteko elektronikoa erabiliz egingo da Zergen Administrazioarentzako honako hauen transmisioa, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 101. artikuluan xedaturikoaren bat etorritz: bideko salmentaren prozeduran emandako zirkulazio-albaranaren zirriborroa, bideko salmentaren prozeduran zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharretan bildutako informazioa eta aireontzientzako horniduretako emate-egiaztagiriek bildutako informazioa. Horretarako, dokumentu bakoitzeko bete beharreko datuak bitarteko elektronikoa erabiliko dira, horien edukia osatzen dutenak hain zuzen ere. Foru Agindu honetako I., V. eta VII. eranskinetan zehaztu dira.

Zirkulazio-albaranaren bidaltzaileak berak eman ditzake datu horiek bitarteko elektronikoa erabiliz, zirkulazio-albaranaren zirriborroa eta emate-oharrak badira, edo bestela, emate-egiaztagirien bidaltzaileak edo horren ordez jardungo duen beste batek.

2. Honako baldintza hauek bete beharko dira Foru Agindu honetako erduei eta dokumentuei dagozkien datuak bitarteko elektronikoen bidez emateko:

a) Zirkulazio-albaranaren bidaltzaileak, zirkulazio-albaranaren zirriborroa bada, eta emate-egiaztagirien bidaltzaileak, emate-oharrak badira, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) izan behar du eta, bidalketa baino lehen, Zergadunen Errolda eta haren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuaren 2. artikuluan aipaturiko zergapekoen erroldan identifikatuta egon behar du.

b) Zirkulazio-albaranaren bidaltzaileak, zirkulazio-albaranaren zirriborroa denean, eta emate-egiaztagirien bidaltzaileak emate-oharrak direnean, datuak eman ahal izango ditu, oro har, Zergen Administrazioak aitortutako ziurtagiri elektronikoa onargarriaren bidez.

Ordezkariek ematen badute bitarteko elektronikoen bidezko hornidura, haiek izan beharko dute onartutako ziurtagiri elektronikoa.

Alabaina, mezuak aurkezteko Foru Agindu honetako 10.1. artikuluan arauturiko prozedura aukeratu bada, HAC/1147/2018 Aginduaren 9. artikuluan xedaturikoa bete beharko da.

9. artikulua. Datuak bitarteko elektronikoen bidez emateko prozedura

1. Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27., 101., 102. eta 110. artikuluetan xedaturikoa garatzeko arauak onesteko urriaren 9ko HAC/1147/2018 Aginduak ezarritako prozedurak jarraituko dira.

2. Datuen transmisio elektronikoa telematikoki ere egin daiteke, hain zuzen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren zergen webgunean (<http://www.araba.eus>) jarritako laguntza-programaren bitartez; bertan azaltzen dira zehaztapen teknikoak.

10. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua

Erregistro-eremuetan ezarritakoa bete beharko da honako hauei buruzko datuak Zergen Administrazioari jakinarazteko egiten diren mezu elektronikoak: zirkulazio-albarana, zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharrak, emate-egiaztagiriak, Foru Agindu honetan arautuak. Horien edukia zehaztuta ageri da I. eranskinean, V. eranskinean eta VII. eranskinean, eta Zergen Administrazioaren Egoitza Elektronikoak Interneten bildutakoa izango dira horien formatua eta diseinua.

Xedapen iragankor bakarra. Aldi iragankorra

Foru-agindu honetan ezarritakoa gorabehera, 2019ko irailaren 30era arte onartuko da 2019ko uztailaren 1era arte indarrean egon diren sistemen bidez aurkeztea informazioa zerga-administrazioari.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea

Edukirik gabe uzten dira, besteren artean, 511 eredu onesten duen abenduaren 31ko 1612/1997 Foru Aginduko lehenengo xedapeneko laugarren apartatua eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien zenbait eredu onesten eta haiek kudeatzeko zenbait arau eguneratzen dituen martxoaren 15eko 205/2012 Foru Aginduaren laugarren xedapeneko hirugarren apartatua.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, eta 2019ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 4a

Ogasun, Finanza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zurendaria
TERESA VIGURI MARTINEZ

I. ERANSKINA**Zirkulazio-albaranari buruzko mezuak betetzeko arauak bideko salmentaren prozeduran****I. Zirkulazio-albaranaren mezuaren zirriborroko laukiak betetzeko jarraibideak**

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27. artikuluan ezarritako bideko salmentaren prozedura erabiltzen bada, zirkulazioa hasten deneko establezimenduetako titularrek zirkulazio-albaranaren zirriborroa formalizatu beharko dute bidalketa bakoitzeko, gida honetan bildutako jarraibideen arabera beteta.

Zirriborroa Zerga Administrazioari aurkeztu behar zaio agirian ezarritako bidalketa-dataren aurreko zazpi egunetan. Zerga Administrazioak zirriborroko datuak egiaztatuko ditu. Datuak baliozkoak ez badira, horren berri emango dio bidaltzaileari. Datuak baliozkoak badira, Zerga Administrazioak ARC kodea ezarriko dio agiriri eta bidaltzaileari jakinaraziko dio nahitaez.

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27.4. artikuluan ezarritako kasuan, baldin eta zirkulazio-albaranaren zirriborroa aurkezteko sistema informazioa erabiltzeko moduan ez badago, zerga berezien menpeko produktuen zirkulazioari egin diezaioke bidaltzaileak. Hala denean, zirkulazioa hasi ondoren aurkeztu da-kioke zirkulazio-albarana Zergen Administrazioari, albaran hori konexioa berrezarri eta hurrengo egun baliodunean aurkeztuta beranduen.

Bideko salmentaren prozeduraren bidezko produktuen zirkulazioa babesteko, Erreferentziako Kode Elektronikoaren bidez baliozkotutako zirkulazio-albaranaren ale bat erabiliko da. Horretarako, eranskin honetan bildutako ereduari lotzen zaion alea erabil daiteke, edo garraioa identifikatu eta argi eta garbi Zergen Administrazioak zirkulazio-albaranari esleituriko Erreferentziako Kode Elektronikoa identifikatzen duen bestelako edozein merkataritzako agiri.

1. Operadore bidaltzailea.

Nahitaezko datu multzoa.

Produktuak ematen diren establezimenduaren titularrak bidaliko du dokumentua.

1a. Bidaltzailearen IFZ.

Nahitaezkoa.

Bidaltzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia ezarri beharko da.

1b. Bidaltzailearen izena.

Nahitaezkoa.

Bidaltzailearen izen-abizenak ezarriko dira, edo sozietate-izena.

1c. Bidaltzailearen JEK.

Nahitaezkoa.

Produktuak bidaltzen diren establezimenduari dagokion jardueraren eta establezimenduaren kodea (JEK) ezarriko da.

2. Bidalketaren datuak.

Nahitaezko datu multzoa.

2a. Mugimendu motaren kodea.

Nahitaezkoa.

Balio hauetako bat ezarriko da:

BALIOA	DESKRIPZIOA
1	Bideko salmentak itsasontziei eginiko horniduretan.

BALIOA	DESKRIPZIOA
2	Bideko salmentak aireontziei eginiko horniduretan.
3	Gainerakoetan.

2b. Lokalaren erreferentzia zenbakia.

Nahitaezkoa.

Bidaltzaileak zirkulazio-albaranari esleituriko zenbakia, zeinaren bidez bidaltzaileak bidalketa identifikatzen baitu bere erregistroetan. 11 karaktereko zenbakikuntza izango da. Lehen biak bidalketa-urtearen azken bi digituak izango dira, eta ondoren sekuentzia zenbakia, urteka, eta hala denean, seriea.

2c. Zerga araubidea.

Nahitaezkoa.

Zerga-araubidea zehazten duen gakoa jarri behar da; hona gakoien taula:

ZERGA ARAUBIDEA	DESKRIPZIOA
A	Itsasontziei edo aireontziei eginiko hornidura salbuetsiak.
V	Produktuen irteera zerga-tasa murriztuan.
P	Produktuen irteera zerga-tasa arruntan.

2d. Zirkulazioaren hasiera-data.

Nahitaezkoa.

Zirkulazioa hasi den eguna. Agiri administratibo elektronikoaren zirriborroa aurkeztu ondoko zazpi egunetako bat izan behar da.

Produktuak establezimendutik irteten diren data ezarriko da, UU/HH/EE formatuan adierazia.

2f laukia betez gero (aurkezpen geroratua), bidalketaren data zirriborroa aurkeztu ondokoa izan daiteke).

2e. Zirkulazioaren hasiera-ordua.

Nahitaezkoa.

Zirkulazioa hasten deneko ordua ezarriko da, OO: MM formatua adierazia.

2f. Aurkezpen geroratua.

Kasu batzuetan bakarrik.

Zirkulazio-albaranaren zirriborroa zirkulazioa hasi ondoren aurkezten denean formalizatuko da.

Balio hau ezarriko da:

BALIOA	DESKRIPZIOA
1	Zirkulazioa hasi baino lehen Zergen Administrazioaren sistema informatikoa erabiltzeko moduan ez izateagatik aurkeztu ez zen zirkulazio-albara ezarrita hasitako mugimendurako bidaltzen bada zirriborroa.

2g. Bulego kudeatzailea.

Nahitaezkoa.

Bidaltzaileak inskribatuta dagoen lurralde erregistroari dagokion bulego kudeatzailearen kodea ezarriko da, Foru Agindu honetako IX. eranskinen bildutako bulego kudeatzaileen kodeen arabera.

3. Garraioaren datuak.

Datu multzoa batzuetan bakarrik.

Ez da beharrezkoa betetzea bideko salmentaren prozeduraren bidez itsasontziei Hidrokarbu-roaren gaineko Zergatik salbuetsitako hornidurak badira eta erregaien garraioa establezimendu hornitzailetik hornidura egiten den tokiraino egiten ez bada.

3a. Garraibidearen kodea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Garraibidea adieraziko da, honako kode hauen arabera:

KODEA	DESKRIPZIOA
1	Itsasoko garraioa.
2	Errepideko garraioa.
3	Beste batzuk.

3b. Garraioaren antolatzailearen kodea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Lehenengo garraioa antolatuko duen pertsonaren kodea zehaztu behar da; hona taula:

BALIOAK	DESKRIPZIOA
1	Bidaltzailea.
2	Produktuen jabea.
3	Beste bat.

3c. Garraioari buruzko informazio osagarria

Aukerakoa.

Garraioari buruzko edozein argibide ezarriko da, adibidez, garraibidearen deskripzioa 3a laukian (Garraibidearen kodea) 0 balioa (Beste batzuk) ezarri bada, aurreikusitako etenaldiak, etab.

3d. Garraibidearen identifikazioa.

Kasu batzuetan bakarrik.

Ibilgailuaren edo itsasontziaren matrikula adieraziko da, bideko salmentaren prozeduraren bidez banaturiko produktuak garraiatzeko erabilia, eta hala denean, trazioburuaren, atoiaren eta edukiontzien matrikula zehaztuko da.

4. Garraioa antolatu duen eragilea.

Nahitaezko datu multzoa.

Garraioa bidaltzaileak edo hartzaileak antolatzen badu, datu hauek ez dira eman behar.

Kasu honetan bakarrik zehaztu behar dira: 3b laukian jarritako lehenengo garraioaren agentearen kodea 2 (produktuaren jabea) edo 3 (beste bat, ez bidaltzailea, ez hartzailea, ez jabea) denean.

4a. Garraioaren antolatzailearen identifikaziorako dokumentu mota.

Garraioaren antolatzailearen identifikaziorako dokumentu mota ezarri beharko da, kodetzen honen arabera:

BALIOAK	DESKRIPZIOA
1	IFZ edo AIZ espainiarra.
2	Batasunaren barruko IFZ BEZ.
3	Beste batzuk.

Garraioaren antolatzaileak IFZ edo AIZ espainiarra badu, 1 balioa ezarriko da.

Ez badu IFZ espainiarrik, baina Espainiakoa ez den Europako Batasuneko beste estatu bateko zergen administrazioak esleituriko IFZ BEZ badu, 2 balioa ezarriko da.

Bestelakoetan, 3 balioa ezarriko da.

4b. Garraioaren antolatzailearen identifikaziorako dokumentuaren zenbakia.

4a laukiko 1 balioa bete bada, garraioaren antolatzailearen IFZ edo AIZ ezarriko da.

4a laukiko 2 balioa ezarri bada, Espainiakoa ez beste edozein estatu kidek garraio antolatzaileari esleituriko IFZ BEZ adieraziko da.

4a laukiko 3 balioa ezarri bada, garraioaren antolatzailea identifikatzea ahalbidetzen duen beste edozein zenbaki adieraziko da.

4c. Garraioaren antolatzailearen izena.

Garraioa antolatu duena ez bada ez bidaltzailea ez hartzailea, antolatzailearen izena idatzi behar da (izen-deiturak edo sozietate-izena).

5. Produktua

5a. Produktuaren epigrafe kodea.

Nahitaezkoa.

Produktuaren epigrafe kodea adieraziko da, Foru Agindu honetako X. eranskinean bildutako kodeen arabera.

5b. NC kodea.

Nahitaezkoa.

Muga-zergen nomenklaturari, estatistikari eta aduanetako muga-zerga erkideari buruzko uztailaren 23ko 2658/1987 Erregelamenduan (EEE) ezarritako NC kodea adieraziko da, indarrean dagoen I. eranskineko azken aldaketarekin bat etorritz.

5c. Produktu kopurua.

Nahitaezkoa.

Kantitatea adieraziko da, produktuaren epigrafe kodearekin loturiko neurketa-unitatean, Foru Agindu honetako X. eranskinean bildutako zerga-unitateen zerrendaren arabera.

Baldin eta produktuaren bolumenarekin osatutako Zerga Bereziaren zerga-oinarria duten produktuak badira, zergaren zerga-oinarria zehaztuko den tenperatuaren arabera adierazi behar da kantitatearen zehaztapena.

5d. Neurketa-unitatea.

Nahitaezkoa.

Foru Agindu honetako X. eranskinean bildutako taulan ezarritako zerga-unitateen kodea zehaztuko da.

5e. Dentsitatea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Baldin eta produktuaren bolumenarekin osatutako Zerga Bereziaren zerga-oinarria duten hidrokarburoak badira, dentsitatea 15°C-tan emango da, kg/litrotan adierazita, hiru hamartar erabiliz.

5f. Produktuaren izena.

Nahitaezkoa.

Produktuen merkataritza izena adieraziko da, garraiatutako produktuak identifikatzeko.

5g. Trazadoreak/Markadoreak.

Kasu batzuetan bakarrik.

Trazadoreak edo Markadoreak daramatzaten hidrokarburoak direnean, inguruabar hori adieraziko da, eta honako balio hau ezarriko da:

BALIOAK	DESKRIPZIOA
1	Trazadorea edo markadorea duen hidrokarburoa.

II. Zirkulazio-albarana ezabatzeko mezua betetzeko jarraibideak

Zergen Administrazioari aurkeztutako zirkulazio-albarana ezabatu ahal izango da, betiere zirkulazioa hasi ez bada.

Zirkulazio-albarana ezabatzeko, honako datu hauek bildu behar dituen mezu elektronikoa erabili behar da:

1. Dokumentua.

Nahitaezko datu multzoa.

1a. Erreferentziako Kode Elektronikoa.

Nahitaezkoa.

Ezabatzea eskatzen zaio zirkulazio-albaranaren Erreferentziako Kode Elektronikoa adieraziko da.

2. Ezabatzea.

Nahitaezko datu multzoa.

2a. Agiria ezabatzeko arrazoia.

Nahitaezkoa.

Taula honetako kodeetako bat hautatu behar da:

BALIOAK	DESKRIPZIOA
0	Beste bat.
1	Akats numerikoa edo deskriptiboa.
2	Merkataritza eragiketa eten da.
3	Zirkulazio-albaranaren bi ale.
4	Zirkulazioa ez da hasi emate-datan.

2b. Informazio osagarria.

Aukerakoa.

Ezabatzeko arrazoiari buruzko edozein informazio osagarri ezarriko da.

III. Bideko salmentaren prozeduraren bidez bidalitako produktuen establezimenduan berriz sartzeko mezua betetzeko jarraibideak

Fabrikatik edo zerga-biltegitik bideko salmentaren prozeduraren bidez bidalitako produktuak badira eta berriz sartzeko badira establezimenduan, bidalitako zirkulazio-albaranarekin justifikatuko da produktua berriz sartzea, eta horretarako, berriz sartzeari buruzko mezu elektronikoa igorriko zaio Zergen Administrazioari, atal honetan ezarritako arauen eta jarraibideen arabera beteta.

Establezimenduan berriz sartzeari buruzko mezua bitarteko elektronikoak erabiliz jakinaraziko zaio Zergen Administrazioari garraibidea jatorriko establezimendura itzuli bezain laster

eta, nolahi ere, zirkulazioa bukatu eta ondorengo bost egun balioduneko epearen barruan, salbu eta aurretik bulego kudeatzaileak baimena emanda epe hori luzatu ahal bada horretarako arrazoiak adieraziz.

1. Dokumentua.

Nahitaezko datu multzoa.

1a. Erreferentziako Kode Elektronikoa.

Nahitaezkoa.

Berriz sartzeari justifikatzeko zirkulazio-albaranaren Erreferentziako Kode Elektronikoa adieraziko da.

1b. Lokalaren erreferentzia zenbakia.

Nahitaezkoa.

Bidaltzaileak berriz sartzeari justifikatzeko zirkulazio-albaranari esleitutako zenbakia, zeinaren bidez bidalketa identifikatzen baitu bere erregistroetan.

2. Berriz sartzeari datuak.

Nahitaezko datu multzoa.

2a. Berriz sartzeko arrazoiak.

Nahitaezkoa.

Taula honetako kodeetako bat hautatu behar da:

BALIOAK	DESKRIPZIOA
0	Berriz sartzeari, ZBEren 27. art.
1	Berriz sartzeari, ZBEren 38. art.

2b. Berriz sartzeari data.

Nahitaezkoa.

Establezimenduan berriz sartu direnko data.

Produktuak establezimenduan berriz sartu direnko data ezarriko da, UU/HH/EE formatuan adierazia.

3. Produktua.

3a. Produktuen epigrafeko kodea.

Nahitaezkoa.

Produktuaren epigrafeko kodea adieraziko da, Foru Agindu honetako X: eranskinean bildutako kodetzaileen arabera.

3b. NC kodea.

Nahitaezkoa.

Muga-zergen nomenklaturari, estatistikari eta aduanetako muga-zerga erkideari buruzko uztailaren 23ko 2658/1987 Erregelamenduan (EEE) ezarritako NC kodea adieraziko da, indarrean dagoen I. eranskineko azken aldaketarekin bat etorritik.

3c. Produktuaren kantitatea.

Nahitaezkoa.

Kantitatea adieraziko da, produktuaren epigrafe kodearekin loturiko neurketa-unitatean, Foru Agindu honetako X. eranskinean bildutako zerga-unitateen zerrendaren arabera.

Baldin eta produktuaren bolumenarekin osatutako Zerga Bereziaren zerga-oinarria duten produktuak badira, zergaren zerga-oinarria zehaztuko den tenperatuaren arabera adierazi behar da kantitatearen zehaztapena..

3d. Neurketa-unitatea.

Nahitaezkoa.

Foru Agindu honetako X. eranskinean ezarritako zerga-unitateen kodea zehaztuko da.

3e. Dentsitatea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Baldin eta produktuaren bolumenarekin osatutako Zerga Bereziaren zerga-oinarria duten hidrokarburoak badira, dentsitatea 15°C-tan emango da, kg/litrotan adierazita, hiru hamartar erabiliz.

3f. Produktuen izena.

Nahitaezkoa.


Produktuen merkataritza izena adieraziko da.

3g. Trazadoreak/markadoreak

Kasu batzuetan bakarrik.

Trazadoreak edo markadoreak daramatzaten hidrokarburoak direnean, inguruabar hori adieraziko da, eta honako balio hau ezarriko da:

BALIOAK	DESKRIPZIOA
1	Trazadorea edo markadorea duen hidrokarburoa.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p>	<p>ZIRKULAZIO ALBARANA SALMENTA-PROZEDURA BIDEAN ALBARÁN DE CIRCULACIÓN PROCEDIMIENTO DE VENTAS EN RUTA</p>
--	---

EKE - Erreferentziako Kode Elektronikoa
CRE - Código de Referencia Electrónico

ONARTUTAKO AITORPENA CSVREKIN:
DECLARACIÓN ACEPTADA CON CSV:

(1) Bidaltzailea Expedidor	(1a) Bidaltzailearen IFZ NIF expedidor	(1b) Bidaltzailearen izena Nombre expedidor	(1c) Bidaltzailearen JKK CAE expedidor


(2) Bidalketaren datuak Datos de expedición	(2a) Mugimendu-mota Tipo de Movimiento		(2b) Tokiko erreferentzia zk. Nº referencia local	
	(2c) Araubide fiskala Régimen Fiscal			
	(2d - e) Zirkulazioaren hasierako data eta ordua Fecha y Hora de inicio de la circulación			
	(2f) Aitorpen geroratuaren adierazlea Indicador de declaración diferida		(2g) Bulego kudeatzailea Oficina Gestora	

(3) Garraioaren datuak Datos transporte	(3a) Garraioaren modua Modo transporte	
	(3b) Garraioaren antolatzailea Organizador del transporte	
	(3c) Informazio osagarria Información complementaria	
	(3d) Garraioaren identifikazioa Identificación del transporte	


(4) Garraioaren antolatzailea Organizador transporte	(4a) Identifikatzeko dokumentu mota Tipo Documento identificación		(4b) Identifikatzeko dokumentu zk. N.º Documento identificación	
	(4c) Izena Nombre			

(5) Produktua Producto	(5a) Epigrafearen kodea Código de Epígrafe		(5b) NK kodea Código NC	
	(5c) Kopurua Cantidad			
	(5d) Neurizko unitatea Unidad de medida		(5e) Dentsitatea Densidad	
	(5f) Produktua izena Nombre del producto			
	(5g) Trazatzaileak / Markatzaileak Trazadores / Marcadores			


II ERANSKINA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava		ENTREGATZE-OHARRA SALMENTA-PROZEDURA BIDEAN NOTA DE ENTREGA PROCEDIMIENTO DE VENTAS EN RUTA	
Lotutako CRE / CRE asociado			
ZERGA BEREZIKO PRODUKTUEN ZIRKULAZIOA CIRCULACIÓN DE PRODUCTOS DE IMPUESTOS ESPECIALES		ONARTUTAKO AITORPENA CSVREKIN: DECLARACIÓN ACEPTADA CON CSV:	
(1) Entregatze-oharra modeloa Modelo de nota de entrega			
(2) Bidaltzailea Expedidor	(2a) Bidaltzailearen IFZ NIF expedidor	(2b) Bidaltzailearen izena Nombre expedidor	(2c) Bidaltzailearen JKK CAE expedidor
(3) Dokumentuaren datuak Datos del Documento	(3a) EKE zirkulazio albarana CRE albarán de circulación		(3b) EO sekuentziaren zk. Nº secuencia NE
	(3c) EO tokiko erreferentzia zk. Nº de referencia local NE		
(4) Destinatarioa Destinatario	(4a) Identifikatzeko dok. mota Tipo doc. identificación		(4b) Identifikatzeko dok. zk. Nº doc. identificación
	(4c) Izena Nombre		
(5) Produktua Producto	(5a) Epigrafearen kodea Código de epigrafe		
	(5b) Kopurua Cantidad		
	(5c) Neurizko unitatea Unidad de medida		
	(5d) Produktuaren izena Nombre del producto		
	(5e) Trazatzaileak / Markatzaileak Trazadores / Marcadores		
(6) Entregatze-tokia eta datuak Lugar y datos entrega	(6a) Herria Localidad		(6b) Posta kodea Código postal
	(6c) Kalea eta zenbakia Calle y número		
	(6d) Hartzailea identifikatzeko dok. zk. Nº doc. identificación receptor		
	(6e) Hartzailearen izena Nombre receptor		
	(6f) Zeren izenean En calidad de		
	(6g) Entregatze-data Fecha de entrega		
	(6h) Hartzailearen sinadura Firma del receptor		

III ERANSKINA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava		ENTREGATZE-OHARRA ITSASONTZIETARAKO HORNIDURAK SALMENTA-PROZEDURA BIDEAN NOTA DE ENTREGA AVITUALLAMIENTOS A EMBARCACIONES PROCEDIMIENTO DE VENTAS EN RUTA	
Lotutako CRE / CRE asociado			
ZERGA BEREZIKO PRODUKTUEN ZIRKULAZIOA CIRCULACIÓN DE PRODUCTOS DE IMPUESTOS ESPECIALES		ONARTUTAKO AITORPENA CSVREKIN: DECLARACIÓN ACEPTADA CON CSV:	
(1) Entregatze-oharra modelo Modelo de nota de entrega			
(2) Bidaltzailea Expedidor	(2a) Bidaltzailearen IFZ NIF expeditor	(2b) Bidaltzailearen izena Nombre expeditor	(2c) Bidaltzailearen JKK CAE expeditor
(3) Dokumentuaren datuak Datos del Documento	(3a) EKE zirkulazio albarana CRE albarán de circulación		(3b) EO sekuentziaren zk. Nº secuencia NE
	(3c) EO tokiko erreferentzia zk. Nº de referencia local NE		
(4) Destinatarioa Destinatario	(4a) Identifikatzeko dok. mota Tipo doc. identificación		(4b) Identifikatzeko dok. zk. Nº doc. identificación
	(4c) Izena Nombre		
(5) Produktua Producto	(5a) Epigrafearen kodea Código de epigrafe		
	(5b) Kopurua Cantidad		
	(5c) Neurizko unitatea Unidad de medida		
	(5d) Produktuaren izena Nombre del producto		
	(5e) Trazatzaileak / Markatzaileak Trazadores / Marcadores		
(6) Itsasontzia Embarcación	(6a) Itsasontziaren izena Nombre del Buque		(6b) Bandera Bandera
	(6c) Matrikula Matrícula		(6d) Jarduera Actividad
	(6e) Armadorearen izena Nombre armador		(6f) Armadorearen IFZ NIF Armador
(7) Entregatze-tokia eta datuak Lugar y datos entrega	(7a) Entregatze-tokia Lugar de entrega		
	(7b) Entregatze-data Fecha de entrega		
	(7c) Hartzzailearen sinadura Firma del receptor		

IV ERANSKINA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava		ENTREGATZE-OHARRA AIREONTZIETARAKO HORNIDURAK SALMENTA-PROZEDURA BIDEAN NOTA DE ENTREGA AVITUALLAMIENTOS A AERONAVES PROCEDIMIENTO DE VENTAS EN RUTA	
Lotutako CRE / CRE asociado			
ZERGA BEREZIKO PRODUKTUEN ZIRKULAZIOA CIRCULACIÓN DE PRODUCTOS DE IMPUESTOS ESPECIALES		ONARTUTAKO AITORPENA CSVREKIN: DECLARACIÓN ACEPTADA CON CSV:	
(1) Entregatze-oharra modeloa Modelo de nota de entrega			
(2) Bidaltzailea Expedidor	(2a) Bidaltzailearen IFZ NIF expeditor	(2b) Bidaltzailearen izena Nombre expeditor	(2c) Bidaltzailearen JKK CAE expeditor
(3) Dokumentuaren datuak Datos del Documento	(3a) EKE zirkulazio albarana CRE albarán de circulación		(3b) EO sekuentziaren zk. Nº secuencia NE
	(3c) EO tokiko erreferentzia zk. Nº de referencia local NE		
(4) Destinatarioa Destinatario	(4a) Identifikatzeko dok. mota Tipo doc. identificación		(4b) Identifikatzeko dok. zk. Nº doc. identificación
	(4c) Izena Nombre		
(5) Produktua Producto	(5a) Epigrafearen kodea Código de epígrafe		
	(5b) Kopurua Cantidad		
	(5c) Neurrizko unitatea Unidad de medida		
	(5d) Produktuaren izena Nombre del producto		
	(5e) Trazatzaileak / Markatzaileak Trazadores / Marcadores		
(6) Aireontzia Aeroneve	(6a) Matrikula Matrícula		
	(6b) Aireko konpainiaren herrialdea País compañía aérea		
	(6c) Aireko konpainiaren identifikatzeko dok. mota T. doc. identificación compañía aérea	(6d) Aireko konpainiaren identifikazio dok. zk. Nº doc. identificación compañía aérea	
	(6e) Aireko konpainiaren izena Nombre compañía aérea		
(7) Erregaiaren jabea Propietario del carburante	(7a) IFZ NIF	(7b) Izena deiturak/ Sozietatearen izena Nombre y apellidos/ Razón social	
(8) Entregatze-tokia eta datuak Lugar y datos entrega	(8a) Entregatze-tokia Lugar de entrega		
	(8b) Entregatze-data Fecha de entrega		
	(8c) Hartzailearen sinadura Firma del receptor		

V. ERANSKINA**Bideko salmentaren prozeduran zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharrak betetzeko arauak, eta emate-oharretan bildutako informazioari buruzko mezu elektronikoak egitea**

I. Bideko salmentaren prozeduran zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharren laukiak betetzeko jarraibideak eta emate-oharretan bildutako informazioari buruzko mezu elektronikoak egitea

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 27. artikuluan ezarritako salmentaren prozedura erabiltzen bada, produktua destinatario bakoitzari ematean, Foru Agindu honetako II., III. eta IV eranskinetan onetsitako ereduari lotutako emate-oharra igorriko da, arau hauetan bildutako jarraibideen arabera.

Jatorriko establezimendura itzuli bezain laster, eta nolahi ere zirkulazioa amaitu eta bost egun balioduneko epearen barruan, emate-oharretan bildutako informazioa helaraziko dio bidaltzaileak Zergen Administrazioari bitarteko elektronikoak erabiliz, arau hauetan bildutako jarraibideen arabera beteko diren mezu elektronikoaren bidez betiere.

Mezu elektroniko horiek egiteko, kontuan izan behar da ez dela beharrezkoa eranskin honetan onetsitako ereduak laukiei dagozkien datuak sartzeari Zergen Administrazioari jakinaraziko datuen artean, baldin eta beren beregi hala adierazten bada arau hauek dakartzaten jarraibideetan.

1. Emate-oharraren eredia.

Zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharren eredia adieraziko da, kode hauen arabera:

BALIOA	DESKRIPZIOA
1	Itsasontzientzako horniduretarako bideko salmentak.
2	Aireontzientzako horniduretarako bideko salmentak.
3	Gainerakoak.

2. Operadore hornitzailea.

Nahitaezko datu multzoa.

2a. Bidaltzailearen IFZ.

Bideko salmentaren prozeduraren bidez produktuak bidaltzen edo ematen direneko establezimenduaren titularraren identifikazio fiskalaren zenbakia ezarri behar da.

2b. Bidaltzailearen izena.

Bideko salmentaren prozeduraren bidez produktuak bidaltzen edo ematen direneko establezimenduaren izen-abizenak adieraziko dira, edo sozietate-izena.

2c. Bidaltzailearen JEK.

Bideko salmentaren prozeduraren bidez produktuak bidaltzen edo ematen direneko establezimenduaren jardueraren eta establezimenduaren kodea (JEK) ezarriko da.

3. Dokumentuaren datuak.

Nahitaezko datu multzoa.

Zenbakikuntza sekuentziala erabiliko da zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharretan, eta zirkulazio-albaranari esleituriko Erreferentziako Kode Elektronikoarekin osatuko da numerazioa; ondoren emate-ohar bakoitzeko zenbaki sekuentziala.

3a. Zirkulazio-albaranari esleitutako Erreferentziako Kode Elektronikoa.

Nahitaezkoa.

Bidaltzaileak igorritako zirriborroa baliozkotzearen ondorioz Zergen Administrazioak zirkulazio-albaranari esleituriko Erreferentziako Kode Elektronikoa ezarriko da.

3b. Emate-oharraren sekuentzia zenbakia.

Nahitaezkoa.

Zirkulazio-albaranaren kargurako emate-oharrei esleituriko zenbaki sekuentziala ezarriko da, hiru digitukoa.

3c. Emate-oharraren lokalaren erreferentzia zenbakia.

Nahitaezkoa.

Bidaltzaileak emate-oharrari esleituriko zenbakia ezarriko da, horrelakorik badago.

4. Destinatarioaren datuak.

Datu multzoa batzuetan bakarrik.

Nahitaez beteko dira zirkulazio-albaranaren zerga-araubidea A (Itsasontzientzako edo aireontzientzako hornidurak) edo V (Produktuen irteera zerga-tasa murriztuan) denean.

Ez da beharrezkoa izango betetzea zirkulazio-albaranean aitortutako zerga-araubidea P bada (Produktuen irteera zerga-tasa arruntean).

Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduko 102. artikuluan aipaturiko itsasontzietako erregai hornidura salbuetsiak badira eta bideko salmentaren prozeduraren bidez egin badira hornidurak, itsasontziaren armadoreari, kontsignatarioari edo errentariari dagozkion datuak beteko dira.

Zerga Bereziei buruzko Arauaren 51.2.a) artikuluekin bat etorritik, hidrokarburoen gaineko zergatik salbuetsitako aireontzientzako erregaien hornidurak badira eta bideko salmentaren prozeduraren bidez egin badira, hornidura egin zaion aireontziaren aire-konpainiari, jabeari edo errentariari dagozkion datuak beteko dira.

4a. Destinatarioaren identifikaziorako dokumentu mota.

Kasu batzuetan bakarrik.

Destinatarioaren identifikaziorako dokumentu mota ezarri beharko da, kode hauen arabera:

BALIOAK	DESKRIPZIOA
1	IFZ edo AIZ espainiarra.
2	Batasunaren barruko IFZ BEZ.
3	Beste batzuk.

IFZ edo AIZ espainiarra badu, 1 balioa ezarriko da.

Ez badu IFZ espainiarrik, baina Espainiakoa ez den Europar Batasuneko beste estatu bateko zergen administrazioak esleituriko IFZ BEZ badu, 2 balioa ezarriko da.

Bestelakoetan, 3 balioa ezarriko da.

4b. Destinatarioaren identifikaziorako dokumentu zenbakia.

Kasu batzuetan bakarrik.

4a laukian 1 balioa bete bada, emate-oharraren xedeko horniduraren destinatarioaren IFZ edo AIZ ezarriko da.

4a laukian 2 balioa ezarri bada, Espainiakoa ez den Europako Batasuneko beste edozein estatuk destinatarioari esleituriko IFZ BEZ adieraziko da.

4a laukian 3 balioa ezarri bada, destinatarioa identifikatzea ahalbidetzen duten beste edozein zenbaki adieraziko da.

4c. Destinatarioaren izena.

Kasu batzuetan bakarrik.

Emate-oharraren xedeko horniduraren amaierako destinatario kontsumitzailearen izen-abi-zenak ezarriko dira, edo sozietate-izena.

5. Produktua.

Nahitaezko datu multzoa.

5a. Produktuaren epigrafeko kodea.

Nahitaezkoa.

Horniduraren xedeko produktuaren epigrafe kodea adieraziko da, Foru Agindu honetako X. eranskinean bildutako kodearen arabera.

Bat etorri behar du zirkulazio-albaranean jasotakoarekin.

5b. Kantitatea.

Nahitaezkoa.

Kantitatea adieraziko da, produktuko epigrafearen kodearekin loturiko neurketa-unitatean, Foru Agindu honetako X. eranskinean bildutako zerga-unitateen zerrendaren arabera.

Baldin eta produktuaren bolumenarekin osatutako Zerga Bereziaren zerga-oinarria duten produktuak badira, zergaren zerga-oinarria zehaztuko den tenperatuaren arabera adierazi behar da kantitatearen zehaztapena.

5c. Neurketa-unitatea.

Nahitaezkoa.

